Prozedura / Procedimiento: P1- Previo de necesidades / P1- Previo de necesidades

Esp.zk. / Nº expte: 2025/144

Interesduna / Interesada/o: MUNGIA UDALA

Gaia / Asunto: CONTRATACIÓN DE SERVICIOS CULTURALES DE MUNGIAKO UDALA, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, MUNGIAKO UDALEKO KULTURA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZKOA, ARAUTUKO DUENA

KONTRATUAREN HEBURUA

Baldintza-agiri honetan oinarrituta egingo den kontratuaren xedea Kultura-Zerbitzu hauek izango dira: gazteria eta dinamizazio soziokulturalaren zerbitzua, udal ekipamenduetako atezaintza-zerbitzuak, tailer-zerbitzua eta aparteko zerbitzuak.

Kontratazio hau Mungiako Udaleko Kultura Sailaren menpe dago.

1. GAZTERIA ETA DINAMIZAZIO SOZIOKULTURALEKO ZERBITZUA

Enpresa esleipendunak, udaleko kultura eta gazteria arloetako arduradunek gainbegiratuta, laguntza teknikoko lanak egingo ditu, honako hauek, hain zuzen ere:

- Udaleko Kultura eta Gazteria arloei laguntzea.
- Funtzionamenduan dauden zerbitzuak eta programak hobetzeko proposamenak egitea.
- Jarduera soziokulturalen programak diseinatzen eta kudeatzen laguntzea.
- Udal-arlo horietatik antolatutako jarduerak dinamizatzen laguntzea,

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, MUNGIAKO UDALEKO KULTURA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA, PROZEDURA IREKI BIDEZKOA, ARAUTUKO DUENA

OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto los siguientes Servicios Culturales: el servicio de juventud de dinamización sociocultural, servicios de conserjería de diferentes equipamientos municipales, servicios de talleres y servicios extraordinarios. La presente contratación depende del área de Cultura del Ayuntamiento de Mungia.

1. SERVICIO DE JUVENTUD Y DE DINAMIZACIÓN SOCIOCULTURAL

La empresa adjudicataria, siempre bajo la supervisión de las personas responsables de las áreas municipales de Cultura y Juventud, prestará labores de asistencia técnica que se concretan en:

- Apoyo a las áreas municipales de cultura y juventud.
- Elaborar propuestas de mejora de servicios y programas en funcionamiento.
- Colaborar en el diseño y gestión de programas de actividades socioculturales.
- Colaborar en la dinamización de las actividades organizadas desde estas

Egiaztapen-kode segurua: Código Seguro Verificación: 15703251375540342376
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion

edo udal-elkarteekin lankidetzan (ekitaldi puntualak, lehiaketak, jaiak, udal-egutegian finkatutako jarduerak, etab.).
- Gazteak dinamizatzeko programa, Gazteinfo eta Mungirock koordinatzea eta gauzatzea (azken kasu horretan, tokiko rock taldeekin lankidetzan).
- Gaztegunearen zerbitzua koordinatzea eta kudeatzea, hileko programazioa eta ekitaldi bereziak barne.

1.1 GAZTERIA ETA DINAMIZAZIO SOZIOKULTURALEKO ZERBITZUAREN ZEREGINAK ETA JARDUN-ESPARRUAK

- Zinegotzigoarekin eta arloko teknikariekin adostuta, gazteen urteko programazioa egitea, gazteek parte hartzeko ekimenak bilduz eta indartuz. Hori gauzatzeko, jarduerak proposatu, prestatu eta antolatzea (ikastaroak, lehiaketak, kontzertuak, etab.).
- Ohiko bilera teknikoak egitea zinegotziekin eta teknikariekin, gazte-jarduerak planifikatzeko.
- Egoerak hala eskatzen duenean, hainbat arlotako (Kultura, Gizarte Ekintza, etab.) udal-teknikariekin koordinatzea, batera egin beharreko jarduerak kudeatzeko eta bikoiztasunak saihesteko. Era berean, Bizkaiko Foru Aldundiko eta eskualdeko udaletako gazteriako teknikariekin harremanetan egotea, erakunde horiek deitutako ikastaro, foro, topaketa eta bileretan parte hartuz.
- Garatutako prozesuak eta jarduerak koordinatzea, eta, ondoren, dagokion ebaluazioa egitea.
- Udal-arlo horietatik antolatutako jarduerak egiten eta antolatzen laguntzea, edo udal-elkarteekin lankidetzan (ekitaldi puntualak,

áreas municipales o en colaboración con diferentes asociaciones municipales (eventos puntuales, concursos, fiestas, actividades consolidadas en el calendario municipal etc.).
- Coordinar y llevar a cabo el programa de dinamización juvenil, Gazteinfo y Mungirock (en este último caso en colaboración con los grupos de rock locales).
- Coordinar y gestionar el servicio de Gaztegunea, incluyendo su programación mensual y los eventos especiales.

1.1 TAREAS Y ÁMBITOS DE ACTUACIÓN DEL SERVICIO DE JUVENTUD Y DE DINAMIZACIÓN SOCIOCULTURAL

- Elaborar, de manera consensuada con la concejalía y el personal técnico del área, la programación anual juvenil, recogiendo y reforzando las iniciativas de participación de la juventud. Para su ejecución, proponer, preparar y organizar actividades (cursos, concursos, conciertos, etc.).
- Mantener reuniones técnicas de forma habitual con las y los concejales y personal técnico para la planificación de actividades de índole juvenil.
- Coordinarse, cuando así lo requiera la situación, con el personal técnico municipal de distintas áreas y servicios (Cultura, Acción Social, etc.), a fin de gestionar actividades conjuntas y evitar duplicidades. Asimismo, mantener contacto con el personal técnico de Juventud de la Diputación Foral de Bizkaia y de los Ayuntamientos de la comarca, participando en cursos, foros, encuentros y reuniones convocados por dichas entidades, a propuesta del personal técnico.
- Coordinar los procesos y actividades desarrolladas, realizando

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 15703251375540342376
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion
Mungin geure ikurrek

lehiaketak, herriko jaiak, udalerrian finkatutako jarduerak, etab.).

1.1.2 Gazte Informazio Bulegoa edo Gazteinfo

Enpresa esleipendunak, horretarako izendatutako langileen bitartez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren uztailaren 20ko 211/93 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako baldintzetan eman beharko du zerbitzua. Dekretu horrek Gazteentzako Informazio Zerbitzuen aintzatespen ofiziala arautzen du.

Gutxienez, zeregin hauek egin beharko dira:

- Gazteei orientazioa eskaintzea.
- Gazteentzako informazio interesgarria biltzea, tratatzea eta lantzea, arreta berezia jarriz honako eremu hauetan, baina beste eremu batzuetara irekita:
  - Prestakuntza eta enplegua.
  - Prestakuntza-aukerak Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatuan eta atzerrian.
  - Bekak, laguntzak eta dirulaguntzak, udako ikastaroak, masterrak, hizkuntza-ikastaroak, graduondoko ikasketak, etab.
  - Emantzipazioa.
- Informazioa egoki iritzitako bideetatik zabaltzea, betiere Mungiako gazteek ahalik eta sarbide zabalena izango dutela bermatuz.
- Gazteei zuzeneko arreta ematea. Informazioa ematea, aholkuak

posteriormente la evaluación correspondiente.
- Colaborar en la realización y organización de actividades organizadas desde estas áreas municipales o en colaboración con diferentes asociaciones municipales (eventos puntuales, concursos, fiestas patronales, actividades consolidadas en el municipio, etc.)

1.1.2 Oficina de Información Juvenil o Gazteinfo

La empresa adjudicataria a través del personal destinado a ello, deberá prestar el servicio en las condiciones establecidas en el artículo 5 del Decreto 211/93, de 20 de julio, del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco, por el que se regula el reconocimiento oficial de los Servicios de Información Juvenil.

Como mínimo, deberán desarrollarse las siguientes tareas:

- Ofrecer orientación a la juventud.
- Recopilación, tratamiento y elaboración de información de interés para la juventud, con especial atención a los siguientes ámbitos, pero abierta a otros:
  - Formación y empleo.
  - Posibilidades formativas en la Comunidad Autónoma Vasca, en el Estado y en el extranjero.
  - Becas, ayudas y subvenciones, cursos de verano, masters, cursos de idiomas, estudios de postgrado, etc.
  - Emancipación
- Difusión de la información por los cauces que consideren oportunos, siempre garantizando el acceso más amplio posible a las personas jóvenes del municipio de Mungia.
- La atención directa a la juventud. Informar, asesorar, atender de manera directa, acompañar de

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 15703251375540342376
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion

ematea, arreta zuzena ematea, modu pertsonalizatuan laguntzea eta, horretarako, bide edo bitarteko egokienak erabiltzea.

- Informazioaren eta zerbitzuen (osasuna, enplegua,...) arloko zerbitzu espezializatuetara bideratzea eta orientatzea, kasu bakoitzerako kanal egokienak erabiliz.
- Kultura eta Gazteria Sailarekin eta udaleko edo eskualdeko beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzea, gazteriarekin lotutako jarduerak antolatzeko eta/edo zabaltzeko, hala nola:
  - urtean zehar eta jai-garaietan jarduerak programatzea eta antolatzea.
  - liburuxkak, panelak eta argitalpenak egitea
  - foroak, tailerrak, mintegiak eta hitzaldiak antolatzea.

- Gazteen intereseko gaiak hautatzea eta sistematizatzea, honako hauei aldizkako informazio eguneratua emateko:
  - udal webgunea
  - interesa duten udal-elkarteak
  - udalerriko gazteen foroak
  - interesa duten beste udal-sail batzuk.

- Hedapen-kanalak etengabe eguneratzea, Mungiako Udalean erabiltzen diren irizpide orokorrei jarraituz, informazioaren bidalketa puntuala eta formatu egokietan ziurtatuz. Bereziki:
  - Gazteguneko sare sozialak elikatzea, gazteen artean ohikoenak direnak erabiltzea, bai gazteriaren arloko programazioa zabaltzeko, bai beste jarduera eta baliabide garrantzitsu batzuk ezagutarazteko.

manera personalizada haciendo, para ello, uso de las vías o medios más adecuados.

- Orientación y derivación a los servicios especializados en materia de información y servicios (salud, empleo...) utilizando los canales más adecuados para cada caso.
- Colaboración con el Área de Cultura y de Juventud, así como otros departamentos municipales o entidades de ámbito comarcal, en la organización y/o difusión de actividades vinculadas con la juventud, tales como:
  - programación y organización de actividades a lo largo del año y en épocas festivas.
  - elaboración de folletos paneles y publicaciones
  - organización de foros, talleres, seminarios y charlas.

- Selección y sistematización de temas de interés juvenil, con el fin de facilitar información periódica y actualizada a
  - web municipal
  - asociaciones municipales interesadas
  - foros de jóvenes del municipio
  - otros departamentos municipales interesados.

- Actualización permanente de los canales de difusión, asegurando la adecuados de la información, siguiendo los criterios generales que se utilizan en el Ayuntamiento de Mungia. En particular:
  - Alimentar las redes sociales de Gaztegune, utilizar las más habituales entre la población joven, tanto para difundir la programación propia del área de juventud, como para dar

Egiaztapen-kode segurua: 15703251375540342376
Código Seguro Verificación:
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion

visibilidad a otras actividades y recursos relevantes.

1.1.3 Gaztegunea

Gazteguneak aisialdirako topagune bat eskaintzen die Mungiako gazteei, aisialdian euskaraz egiteko.

Zerbitzuak nerabea bere izate eta konplexutasun osoan hartzen du kontuan, pertsonaren garapen integrala lortzeko.

Partaidetza-egitura gisa ulertzen da, non nerabeek parte-hartze aktiboa duten, inguratzen dituen errealitatea ezagut dezaten eta errealitate horren protagonista bihur daitezen, bai proiektu kolektiboetan, bai norbanakoetan.

Esparru horretan, Gaztegunek jarduera eta aisialdirako gune bat eskaintzen du, euskaraz erabiltzeko eta komunikatzeko, gazteen garapen integrala bultzatzen duena. Ingurune horretan, eremu akademikoan eta formalean, gazteek beste pertsona batzuekin harremanak izateko aukera izango dute, diskriminaziorik gabeko balioak eta jarrerak garatuko dituzte, eta tokiko komunitatearen parte aktibo sentituko dira, kide izatearen zentzua indartuz. Horrela, haien parte-hartze aktiboa eta ekimen pertsonala sustatzen da, bai eta haien nortasuna eta autonomia garatzea ere, komunitate-bizitzan tartekatutako espazio batean.

Enpresa esleipendunak jarduera- eta aisialdi-espazio horren dinamizazioa eta kudeaketa egokia bermatu beharko ditu, eta, gutxienez, eginkizun hauek bete beharko ditu:

- Topagune komunitario euskalduna izatea, nerabe eta kuadrilla desberdinen artekoa, euskararen erabilera sustatuko duena.

1.1.3 Gaztegune

El Gaztegune ofrece a los y las jóvenes de Mungia un lugar de encuentro y de ocio en el que desarrollarse durante su tiempo libre, en euskera.

El servicio contempla a la persona adolescente en todo su ser y complejidad para lograr un desarrollo integral de la persona.

El mismo se concibe como una estructura de participación en la que las personas adolescentes toman parte activa, con el objetivo de que conozcan la realidad que les rodea y se conviertan en protagonistas de la misma, tanto en proyectos colectivos como individuales.

En este marco, Gaztegune ofrece un espacio de actividad y ocio, de uso y comunicación en euskera, que favorece el desarrollo integral de la juventud. Se trata de un entorno en el que, más allá del ámbito académico y formal, las y los jóvenes puedan relacionarse con otras personas, a desarrollar valores y actitudes no discriminatorias, y sentirse parte activa de la comunidad local, reforzando su sentido de pertenencia. De esta manera, se promueve su participación activa, su iniciativa personal, así como el desarrollo de su identidad y autonomía, en un espacio integrado en la vida comunitaria.

La empresa adjudicataria deberá garantizar la dinamización y correcta gestión de este espacio de actividad y ocio, desarrollando, como mínimo las siguientes funciones:

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 15702251375540342376
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion

- Errespetu- eta bizikidetza-balioak sustatzea, arreta berezia eskainiz euskal nortasun eta kulturei, kulturartekotasunari eta ingurumenaren errespetuari.
- Mungian gazteen eta nerabeen parte-hartze aktiboa bultzatzea, interes publikoko ekimenak garatuz, udalerriko gainerako eragileekin koordinatuta.
- Gazteen eta nerabeen parte-hartzea erraztea eta bultzatzea, udalerrian dauden foroen bidez.
- Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna sustatzea: generoaren arabera eraikitako estereotipoak, rolak eta aurreiritziak hautsiz, pertsonaren garapen integrala lortzeko.
- Gizarte-bazterkeriaren lehen mailako prebentzioa, kasu posibleak detektatuz eta dagokion sail edo erakundera bideratuz.
- Zerbitzu honetarako helburuak eta edukiak proposatzea, ikasturtean eta oporraldietan zehar egingo diren jarduerak, tailerrak eta esperientziak barne, baita zerbitzua ebaluatzeko erabiliko diren adierazleak ere.

Programazioa urtero egin beharko da, gazteriaren arloarekin eta udaleko beste sail batzuekin koordinatuta, eta ekitaldiaren hasieran plangintza orokorra eta hileko programazio zehatza aurkeztu beharko dira.

- Programatutako jarduerak dinamizatzea eta ebaluatzea.
- Gaztegunaren kudeaketa eta kontrola, erabiltzaileen asistentzia-erregistroa, instalazioen erabilera eta materialen, ordenagailuen, ikus-entzunezko ekipamenduaren, jokoen eta abarren mantentze-lanak barne. Antzemandako edozein gorabehera Mungiako Udaleko Gazteria Arloari jakinarazi beharko zaio, hark ebatz dezan.

- Ser un punto de encuentro comunitario euskaldun, entre adolescentes y cuadrillas diversas, que promueva el uso del euskera
- Potenciar los valores de respeto y convivencia, ofreciendo especial atención a las identidades y culturas vascas, la interculturalidad y al respeto del medio ambiente.
- Impulsar la participación activa de jóvenes y adolescentes en Mungia, desarrollando iniciativas de interés público, en coordinación con el resto de agentes del municipio.
- Facilitar e impulsar la participación de las y los jóvenes y adolescentes a través de los distintos foros que existen en el municipio.
- Promover la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres: rompiendo con los estereotipos, roles y prejuicios construidos en función del género, para lograr el desarrollo integral de la persona.
- Prevención primaria de la exclusión social, mediante detección y derivación de posibles casos al departamento o institución correspondiente.
- Proponer objetivos y contenidos para este servicio, que incluyan actividades, talleres y experiencias durante el curso escolar y periodos de vacaciones, así como los indicadores que empleará para la evaluación del servicio.

La programación deberá elaborarse de forma anual, en coordinación con el área de juventud y otros departamentos municipales, presentando una planificación general a comienzo del ejercicio y una programación mensual concreta.

- Dinamización de las actividades programadas y evaluación de las mismas.
- Gestión y control del Gaztegune, incluyendo el registro de asistencia

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 15703251375540342376
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion

- Gazteei sarbidea eta orientazioa erraztea, bai zuzenean, bai sare sozialen bidez

de las personas usuarias, el uso de instalaciones y mantenimiento de materiales, ordenadores, equipamiento audiovisual, juegos, etc. Cualquier incidencia detectada deberá ser comunicada al Área de Juventud del Ayuntamiento de Mungia para su resolución.
- Facilitar el acceso y orientación a las personas jóvenes, tanto de forma directa como a través de las redes sociales.

1.1.4 Mungirock (kontzertu-aretoa eta entsegu-lokalak)

Enpresa esleipendunak Mungirock espazioaren kudeaketan eta dinamizazioan lagundu beharko du, tokiko rock taldeekin koordinatuta, gutxienez honako funtzio hauek betez:

- Entsegu-lokalen kudeaketa antolatzea, zerbitzu honetan interesa duten tokiko rock taldeen eskaerei erantzunez.
- Talde erabiltzaileek egindako hobekuntza-eskaerak eta kexak jasotzea eta bideratzea, eta gazteriaren arlora behar bezala helaraztea.
- Kontzertuei, maketa-lehiaketei, dirulaguntzei edo bestelako baliabide interesgarriei buruz Gazte Informazio Bulegoan jasotako informazio garrantzitsu guztia ematea musika taldeei.
- Lokalen erabilerari buruzko araudian hobekuntzak edo aldaketak proposatzea, haien funtzionamendua optimizatzeko.
- Noizean behin, MungiRocken entseatzen duten taldeekin biltzea, eta udalerriko gazteentzat interesgarriak ikusten diren jarduerak antolatzen laguntzea-
- Instalazioak behar bezala erabiltzen direla zaintzea, indarrean dagoen araudiaren eta aplikatu beharreko lege-xedapenen arabera.

1.1.4 Mungirock (sala de conciertos y locales de ensayo)

La empresa adjudicataria deberá colaborar en la gestión y dinamización del espacio Mungirock, en coordinación con los grupos locales de rock, al menos, las siguientes funciones:

- Organizar la gestión de locales de ensayo, atendiendo a las solicitudes de los grupos de rock locales interesados en este servicio.
- Recoger y canalizar las peticiones de mejora y quejas formuladas por los grupos usuarios, trasladándola debidamente al área de juventud.
- Facilitar a los grupos de ensayo toda la información relevante recibida en la Oficina de Información Juvenil relacionada con conciertos, concursos de maquetas, subvenciones u otros recursos de interés.
- Proponer mejoras o modificaciones en la normativa de uso de los locales, con el fin de optimizar su funcionamiento.
- Reunirse periódicamente con los grupos que ensayan en MungiRock prestando apoyo en la organización de actividades que se consideren de interés para la juventud del municipio.
- Velar por el buen uso de las instalaciones, conforme las normativa vigente y las disposiciones legales aplicables.

Egiaztapen-kode segurua:
Código Seguro Verificación: 157032513755403423 76
Modu elektronikoan sortutako agiria. Benetakoa dela egiaztatzeko, sartu hemen: https://sede.mungia.eus/validacion
Documento firmado electrónicamente, autenticidad verificable en https://sede.mungia.eus/validacion

- Tokiko rock-taldeekin batera, kontzertuak eta musika-jarduerak dinamizatzea eta antolatzea, bai Mungirock espazioan bertan, bai udal-instalazioetan edo aire zabaleko espazioetan, betiere gazteriari eta kultura-sustapenari lotuta badaude.

1.2 GAZTERIA ETA DINAMIZAZIO SOZIOKULTURALEKO ZERBITZUARI ATXIKITAKO GIZA BALIABIDEAK

Deskribatutako lanak behar bezala egiteko, enpresa esleipendunak honako giza baliabide hauek atxiki beharko ditu:

- Langile-hornidura nagusia:
  - Urtean gutxienez 1.595 orduko dedikazioa eskatuko da.
  - Ordu horietatik, urtean 200 ordu egutegirik gabe geratuko dira, eta organo kontratatzailearen esku geratuko dira, aparteko jardueretan edo beharrizanetan erabil ditzan.
  - Zerbitzu honetarako izendatutako pertsonak edo pertsonek 2. kategoria izan beharko dute, indarrean dagoen Bizkaiko Esku-hartze Sozialeko Hitzarmenean xedatutakoaren arabera.
  - Zerbitzua emateko egutegia eta ordutegia zerbitzuaren beharretara egokituko dira, eta aldez aurretik Kultura Sailarekin adostuko da. Arlo horrek emango diren zerbitzuen arteko banaketa ezarriko du (Gaztegune eta Gazte Informaziorako Bulegoa).
- Asteburuetarako eta egun berezietarako errefortzu espezifikoa:
  - Zuzkidura nagusiaz gain, esleipendunak urtean 167 ordu gehiago eman beharko ditu Gaztegune zerbitzurako.
  - Errefortzu hori 4. kategoriako langileek emango dute, indarrean dagoen Bizkaiko Esku-hartze

- Dinamizar y coorganizar junto con los grupos de rock locales, conciertos y actividades musicles, tanto en el propio espacio Mungirock como en otras instalaciones municipales o espacios al aire libre, siempre que estén vinculados a la juventud y a la promoción cultural.

1.2 RECURSOS HUMANOS ADSCRITOS AL SERVICIO DE JUVENTUD Y DE DINAMIZACIÓN SOCIOCULTURAL

Para la correcta ejecución de las tareas descritas, la empresa adjudicataria deberá adscribir los siguientes recursos humanos:

- Dotación principal de personal:
  - Se exigirá una dedicación mínima de 1.595 horas anuales.
  - De dichas horas, 200 horas anuales quedarán sin calendarizar, quedando a disposición del órgano contratante para su utilización en actividades o necesidades extraordinarias.
    - La persona o personas designadas para este servicio deberán contar con Categoría 2, de acuerdo con lo dispuesto en el Convenio de Intervención Social de Bizkaia vigente.
    - El calendario y horario de prestación se ajustará a las necesidades del servicio, siendo previamente consensuado con el área de cultura, y contando con el visto bueno de la concejalía de Juventud, que establecerán la distribución entre los diferentes servicios a prestar (Gaztegune y Oficina de Información Juvenil).
- Refuerzo específico para fines de semana y días especiales:
  - Además de la dotación principal, la adjudicataria deberá aportar 167 horas anuales adicionales destinadas al servicio Gaztegune.

Sozialeko Hitzarmenaren arabera.

- Este refuerzo se prestará mediante personal con categoría 4, conforme al Convenio de Intervención Social de Bizkaia vigente.

1.2.1 Zerbitzuari atxikitako langileen betekizunak:

Zerbitzu honetarako izendatutako pertsonak edo pertsonek gutxieneko baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Langile nagusia:
  - Gizarte eta Kultura Zerbitzuetako eta Komunitaterako Prestakuntza Zikloko goi-mailako gradua izatea, gutxienez.
  - Gai horiei buruzko prestakuntza osagarria izatea.
  - Arlo soziokulturalean bi urteko esperientzia egiaztatzea.

- Gaztegunerako errefortzuko langilea:
  - Gutxienez eskola-graduatua edo eskola-ziurtagiria izatea.
  - Aisialdiko begirale-titulua izatea.

- Hizkuntzen ezagutza:
  - Zerbitzura atxikitako pertsonek euskararen C1 maila egiaztatu beharko dute, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren edo titulu baliokide baten arabera.
  - Jendeari arreta ematen dioten pertsonek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko aukera izango dutela eta herritarrei zuzendutako komunikazio guztia bi hizkuntzetan egingo dela bermatu beharko da, betiere euskararen erabilera lehenetsiz eta ziurtatuz, eta Mungiako Udaleko Euskararen Ordenantzaren jarraibideei jarraituz edo Euskara Sailaren ikuskaritzapean.

1.2.1 Requisitos del personal adscrito al servicio:

La persona o personas designadas a este servicio deberán cumplir los siguientes requisitos mínimos:

- Personal principal:
  - Estar en posesión, como mínimo, de un Grado superior de Ciclo Formativo de Servicios Socioculturales y a la comunidad.
  - Disponer de formación complementaria en estas materias
  - Acreditar dos años de experiencia en el ámbito sociocultural.

- Personal de refuerzo para Gaztegune:
  - Estar en posesión como mínimo, del Graduado Escolar o Certificado de Escolaridad
  - Contar con el título de monitor/a de Tiempo Libre.

- Conocimiento de idiomas:
  - Las personas adscritas al servicio deberán acreditar el Nivel C1 de euskera, conforme al Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas, o un título equivalente.
  - Se deberá garantizar que las personas que atiendan al público puedan comunicarse en los dos idiomas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca y que toda la comunicación dirigida a la ciudadanía se realice en ambos idiomas, priorizando y asegurando siempre el uso del euskera y siguiendo las indicaciones de la Ordenanza del Euskera del Ayuntamiento de

- Informatikako ezagutzak.
- Udalerriko kultura- eta gazte-errealitatea ezagutzea

Mungia o bajo la supervisión de su Departamento de Euskera.

- Conocimientos de informática.
- Conocimiento de la realidad cultural y juvenil del municipio.

1.2.2 Gazteria eta Dinamizazio Soziokulturaleko Zerbitzuaren ordu proposamena

Organo kontratatzaileak beretzat gordetzen du zerbitzuaren ordutegia ezartzeko ahalmena, eta aldatu egin daiteke interes publikoaren eta erabiltzaileen eskariaren arabera. Zehazten den ordutegiaren barruan, animazio- eta dinamizazio-jarduera orokorrak garatzeko ordu malguak egongo dira, eta urtero planifikatuko dituzte organo kontratatzaileak eta enpresa esleipendunak. Horrek guztiak ez du eragotziko urtean 200 ordu erreserbatzea, egutegirik gabe, zerbitzuaren beharrak eta/edo urtean zehar programatutako jarduerak betetzeko.

1.2.2 Propuesta horaria del Servicio de Juventud y de Dinamización Sociocultural

El órgano contratante se reserva la facultad de establecer el horario del servicio, pudiendo éste ser modificado en función del interés público y de la demanda de las personas usuarias. Dentro del horario que se determine, existirán horas flexibles destinadas al desarrollo de actividades de animación y dinamización de carácter general, que serán planificadas anualmente entre el órgano contratante y la empresa adjudicataria. Todo ello se entiende sin perjuicio de la reserva de 200 horas anuales sin calendarizar, destinadas a cubrir necesidades del servicio y/o actividades programadas a lo largo del año.

2. ATEZAINTZA ZERBITZUA

Oso garrantzitsua da organo kontratatzailearen aldetik erabilera publikorako udal-instalazioak atezaintza-zerbitzuz hornitzeko beharra, herritarrek instalazioekin duten lehen harremana baita, eta, kasu horretan, Udalaren ageriko aurpegia da. Hori dela eta, zerbitzu honek izan behar dituen funtsezko ezaugarriak, zerbitzu horretara bideratzen diren pertsonengan zehaztuta, adeitasuna, irisgarritasuna eta bereizmena dira, atezaintza-zereginaren berezko funtzioak osatzen dituzten beste batzuez gain (aurrerago zehaztuko

2. SERVICIO DE CONSERJERIA

